

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**PRIM 43**

Egilea eta data: J. Gurruchaga; 1919

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, bi fatxada dituena. Jatorriz erdisotoa, bastardea eta bost goi oin ditu (azkena jatorriz bitan atzeraemana eta gero aurrera ekarria Gernikako Arbolaren Pasealekurantz, laugarren oinaren gainetik irten arte, 1920an), gehi 1920ko jasodura atzeraeman bat –azpiko oinarekiko atzeraemana bi fatxadetan–. Harlanduzko fatxada, hormigoizko begiratokiak dituena txandaka Prim kalerako baoetan, eta hormigoizko gorputz irtenak Gernikako Arbolaren Pasealekurantz. Erdisotoaren gainean terraza Gernikako Arbolaren Pasealekurantz.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokitu dira.

2.- Berriazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemana (6. goi oina).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.